

PIERRE DUNY-PÉTRÉ

Zinez garaztarra zen Pierre Duny-Pétré, garaztarra errotik, aita Lekunberrikoa, ama Donibane berekoa. Sortu zen 1914eko apirilaren 3an Espainiako karrikako etxe eder batean, XVIII. mendekoa hain zuzen, giltza egile baten etxea, nafar itxurakoa, bere baratzeñoa giblean.

Aita guarda izanez, Aldudeko, Baigorriko, Urdoz auzoko eta Donibane Garaziko eskola publikoan egin zituen lehenbiziko estudioak eta gero Baionako lizeoan, hasi zituelarik filosofiako ikasketak bigarren gerla aintzin. Ezagutu du, beraz, bi gerlen arteko Donibane Garazi herri euskalduna, bere asteleheneko merkatuarekin, han biltzen baitziren Garaziko herri guzietako laborariak eta ere Baigorriko eta Iholdiko kantona-menduetarik heldu zirenak. Ardi, marro, behi, zaldi, asto, gizonen sal-erospenak, emazteak jiten zirela ere etxeko mozkinen saltzeko, barazki, arroltze, oilo, oilasko, hitz batez poalleria guzia.

Hogeita bost urte zituen Pierre Duny-Pétré-k hasi zelarik bigarren gerla, jadanik senditu zuela bere bihotzean Espainiako guduka, euskaldunen zorte tristea, bilduak zirelarik Donibane Garaziko gaztelu zaharrean erbestean ziren euskaldun haurrak Lafite apezari eta orduko Donibaneko alkateari Haranburu jaunari esker.

1940.ean, *Somme* ibaiaren ondoan Alemanek preso hartu zuten, baina hor agertzen da Pierre Duny-Pétré-ren jeinua, bost aldiz eskapatuko dela, seigarren aldian 1942.an askatzen dela osoki, Marseillara etorritz bere osaba Jean Pétré-ren ondora. Jaun hau da Frantzia Hego Ekialdeko erresistentziaren buru eta berehala jarraikitzen zaio osabari, gerla segituz Alemanen kontra sasigudari gisa.

1944.ean Frantzia libratzen delarik sartzen da polizian, lehenik *DST* deritzan adarrean eta gero izendatzen dute komisario departamenduetako hiri nagusietan egiten duela bere lana, azkenik Pauen ukanen duela bere lanpostua. Anartean ezkondu da ene kusia Jeanne Idieder Iholdi Haranburuko alaba errientsarekin, sema bat Ellande ukanen dutela.

Polizia lana eta abertzaletasuna ezkonduz daude Pierre Duny-Pétré-ren baitan. Alde batetik bizitzeko duen ofizioa eta bertze aldetik bihotzean barna sartua zaion sendimendu sakona. *Enbata* mugimendutik hurbil dago eta astekari horretan idazten du izenorde batzuen pean izan dituen Garaziko Manex eta bere gardentasunean Jon Donipétry. Mauleko aberri egunean, 1972.an agertzen da jendeen artean, zenbait egunen buruan erretretara doala. Polizia batek han ikusirik salatzen du eta deitua da Parisera Poliziako nagusi haundiaren aitzinera.

Abertzale izan baino lehen euskaltzale da Pierre Duny-Pétré. Harremanetan sartzen da René Lafon Bordeleko Unibertsitateko euskal katedradunarekin, hasiz etnologiako ikerketak, Basa Jaunari buruz eta gero, ikusirik zer beherekada daukan euskarak



Garazin eta Iparraldean, biltzen ditu, haur kantu, eskolako jostetak, erran zaharrak, horiek guziak berak entzunak Alduden han bizi zelarik edo Donibane Garazin, bilduz ere bere familian, bai eta ere bere andrearen familian. Ikus horretarako *Gure Herria* aldizkaria, *Anuario de Eusko Folklore* eta, azkenik, *Xirula mirula*, deitzen den liburu batean agertuko da luzaz egin duen ikerkuntza.

Euskaltzain urgazle izendatua izana da 1963.an bereziki bere olerkari emaitzaren gatik. Olerkaria baitzen Pierre Duny-Pétre, idazten zituen olerkiak agertu direla *Gure Herrian*, *Elgar-en*, *Herrian*, *Eusko gogoan*. Maite zuen bereziki balada deritzan frantses erdi aroko olerki mota Guillaume de Machaut edo François Villon-ek erabili zutena. Bala-

dak hiruzpalau estrofa baditu hamar neurtitzekoak, neurtiz bakoitza hamar silabaduna, errimak gurutzatzen direla (a b a b a b a b a b) eta azkenik «igortze» deritzan sei neurtitzeko estrofa errima berekin (b a b a b a b). Berrogeita sei neurtitzetan bukaera berak izanen dira (ia, ez) orain irakurriko dudan *Berak erranez* tituluarekilako balada:

1

Izanik omen pilotaria,
Erran ta erran ari zen Manez,
Zer den oraiko «Joko Berria»...
Hortan, jabetuz, pilota batez,
Trenkatu nahiz beti kintzia,
Hutsak eginik aldi guziez,
Atxeman zien estakuria:
Eskietan min, edo bestenez
Pilota-plaza zakon ttipia!
Xapelduna zen... berak erranez!

2

Roxali deitu neska gaztia,
Betikotz eder ezin egonez,
Mutzurdina zen bilakatia,
Parisen sehi lehen izanez.
Bana geroztik, zer kondaria
Emaiten zaukun dena gezurrez:
Miss izanikan, egunkaria
Zen estalia haren potretetz!
Jinkoak daki nun den egia.
Erregina zen... berak erranez!

3

Kaskoin ergel bat, mihi luzia,
Mintzo zen gerlaz, untsa edanez.
Lehertu zien, hor, etsaia,
Lau gizon hilik ukaldi batez!
Gure Pettiri trufatzailia,
Irrintzinaka hasirik tanpez,
Ikaran zagon kalakaria,
Ahoa nunbait hetsi beharrez,
Beldurrarekin zuri-zuria.
Gerlaria zen... berak erranez!

4

Bere buriaz arras hartia,
Gizon gazte bat, urruntik jinez,
Iduri zaukun zela Printzia,
Mintzatuz zaldiz edo langilez,
Aipatuz etxe ta jauregia.
Ezkonduz geroz, espanturik ez...
Borda batian zien tegia,
Ama gaixoa, langilen ordeztu,
Asto maingu bat, bere zaldia.
Haberatsa zen... berak erranez!

IGORTZE

Jaun frantximenta, gora Frantzia!
Dena espantu, oihu eginez.
Harrotzen duzu jende guzia.
Paristarrak du sinesten zinez
Mundian dela, Frantses handia,
Lehen-lehena... berak erranez!

Piarres HÉGUITOA.

Hautatu dudan baladak erakusten du olerki mota egokia dela iraganaren aipatze-ko alde batetik eta jorragailu pollita dela denbora berean. Hori izan da Piarres Hegi-toa-k erabili duen gai nagusia. Iragana bere oroitzapen xoragarriekin «*Mais où sont les neiges d'antan !*» delakoaren oihartzuna, ezeztatzen ari dela, hautetsiek, agintariak ez dutelarik deus egiten euskararen hiltzaile den bizitzeko manera berriaren kontra, gehienetan haren laguntzaile hurbil ez balinbadira esku mutil bilakatzen.

Hori zen Pierre Duny-Pétré-ren kezka, hortakotz salatu ditu bere olerkietan, ho-beki ulertua izateko idazten zuela Garaziko euskalkian.

Laurogeita hamaika urte ez ditu osoki bete. Zendu da martxoaren 24ea, Martxo-aren 26an elizkizunetan galdegin zidan familiak irakur nezan Pierre Duny-Pétré-k ida-tzi zuen olerki bat. Hautatu nuen *Harrak eta haritza* deitzen dena. Eskaintza da: *Gure herri pollita eta gure euskaldungoa xehatzen dituzteneri ene samurgoarekin* eta azken bertsuak salatzen du gogorki orduko joka-moldea:

Har horiek bezala, gizona da galtzen,
Geroaz ez delarik zinez axolatzen.
Itsutuki lanari balinbada lotzen,
Hautsi, motz eta trenka, makur edo zuzen.
Zirt hunak, zart harat, dena du xehatzen.
Hortarik, azkenian, zer zako gertatzen?
Ontasun ederrenak ditu fundikatzen
Ta Jainkoak emanak debrurat igortzen.

Halakoa zen Piarres Hegittoa, euskaltzale eta abertzale suharra. Goian bego.

Irisarri, 2005-VII-21

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburu ohia*